



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona.: 943 31 30 30 Emaila: igeldokoorria@gmail.com



AURKIBIDEA

Herrian zer berri? / 2-3-4-5

Kontu kontari / 6-7

Monografikoa / 8-9

Handik eta Hemendik / 10

Denborapasak / 11

Iritzi-artikulua eta Agenda / 12

KONTU KONTARI:

AINARA AZPIAZU, JEXUX ALBENIZ ETA

IRUNE LARREAREKIN

Kaixo herrikide!!!

Udako oporraldiaren ostean, bueltan gaituzue, indarrez berriro ere. Hemen dator udazkeneko alea.

Azken lau hilabete hauetan herrian egin diren hainbat ekintzen informazioarekin gatoz. Herriko festak, herri kontseiluko hauteskundeak...

Erreportajerako, azken urte hauetan gurera etorri diren hiru herritarrekin bildu gara. Honetaz gain, urriaren 24-25ean ospatuko den Udazken Festaren egitarauarekin eta Itsas Aurrek antolatuko dituen ekintzekin gatoz.

Ea gustoko duzuen!

Herria martxan

Maiatzean egin ziren hauteskundeak kontuan hartuta, honela egituratuta geratu da Herri Kontseilu berria: Ainhoa Gorostidi (lehendakaria), Iker Zinkunegi, Maider Illarramendi, Miren Zinkunegi, Aitziber Alzua, Ioritz Galparsoro, Ander Zubeldia, Aitziber Gabilondo eta Kote De La Granja. Kontseilu berria udara pasa ostean martxan jarri da. Batzorde batzuk lanean jartzeko asmoa dute, baten batek gairen batekiko interesik balu, kontaktuan jar dadila. (herrikontseilua@gmail.com)

Urtero bezala, Igeldoko festetan, Herri Taberna izan zen diru-iturrietako bat, 5494,68€ atera ziren. Herri Kontseiluak lanean aritu zireten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkizue.

Din din elkarteak, konponketa batzuk (margotu...) direla eta, itxita egon da aste-betez.

Seinalizazioa

Herri Kontseiluak jakinarazi nahi dizue, Murgil bidean eta bordako bidean, Donostiako udalak debeku seinaleak jarri dituela Igeldoko herritarrek kontuan hartu gabe. Udalarekin kontaktuan jarri dira horri soluzio bat emateko.



Eskola zaharreko obra

Maiatzeko alean aurreratu bezala, eskola zaharraren obra aurrera doa. Espero baino gehiago luzatzen ari da, uste zutena baino okerrago aurkitu baitute. Orain, bi hilabeteko luzapena izango duen konponketa hasi berri dute, arkupea egokitzeko eta baita iparraldeko fatxadan dagoen gehigarria botatzeko ere. Hori amaitzen dutenean, oraindik gauza batzuk geratuko dira eta luzerako joko du.

Garagardo-azoka eta zozketa berezia

Itsas Aurrek zenbait kontu elkarbanatu nahi ditu.

Azken berriak hauexek dira: Euskadiko Epaitegi Gorenak eskatutako azken txostenean, berriz ere, Igeldoko udalerria ekonomiki bideragarria dela frogatzen da. Eta baita ere, esan, Espainiako gobernu-ordezkarari den Carlos Urquijok Aldundiaren aurka jarritako elegitearen epaia azken horren aldekoa izan dela, hau da, 2013ko azaroan burututako galdeketa legezkoa dela.

Beraz, Igeldo udalerrri da, herritarron gehiengoak hala eskatu zuelako eta epaitegiek diotenaren zain egon beharrean, lanean jarraitu behar da egunero.

Azaroaren 13, 14 eta 15ean Garagardo-azoka eta galdeketaren urteurren festa ospatuko dira. Asteburu osoan zehar herrian garagardo bereziak eta jaki alemanak dastatzeko aukera paregabea izango da. Gabonetako zozketa berezia ere antolatuko dute; abenduaren 31ean, urteko azken osteguna izanik, saski mundiala zozketatuko da, laster herriko tabernetan ikusgai egongo dena.

Euskara-batzordea

Aurreko ikasturtean, Euskara-Batzordeak zenbait helburu markatu zituen. Helburu horietako batzuk jada bete dira, hala nola, kale-neurketa bat eta galdetegi berezi bat Igeldoko eskolako haur eta gurasoei. Horien emaitzak laster kaleratuko dituzte. Aurrerapen gisa, hona hemen galderetako biren erantzunak:

-Amak euskaraz ba al daki?

Bai %80,56 Zerbait %16,67 Ez %2,78

-Aitak euskaraz ba al daki?

Bai %63,89 Zerbait %25 Ez %11,11

Euskararen eguna dela eta, ekintza bereziren bat antolatzeko ideia dute. Abendu hasieran izango da euskararen nazioarteko egunaren inguruan. Aurrerago informazio gehiago izango dute.

Kilometroak Usurbilen

Urriaren 4ean, Usurbilen Kilometroak festa antolatu zen. Igeldotik 50 lagun inguru gerturatu ziren laguntzera. Argazkian, horietako batzuk eta momentuan hurbildu ziren beste batzuk.



Ikasturte berria abian

Lehenik eta behin, Ieltxo kultur elkarteak 2014/2015 ikasturtean parte hartu duzuen guztiei eskerrak eman nahi dizkizue. Ikasturtean zehar hainbat ekintza, tailer, festetan parte hartzea... gauzatu ditu elkarteak. Ieltxok hasieratik helburu bartzuk markatu zituen. Herriko adin ezberdinekoei ekintza kulturalak eskaintzea, euskara sustatzea, herria dinamizatzea eta herriaren nortasuna babestea. Hori guzti betetzeko, ezinbestekoa da urtean zehar antolatzen diren ikastaroetan jendeak parte hartzea. Aurreko ikasturteak parte-hartze handia izan du. 2014/2015 ikasturteko diru-mugimenduak honakoak izan dira:

DITU SARREAK		DIRU IRTEERAK	
KONTZEPTUA	KANTITATEA	KONTZEPTUA	KANTITATEA
KUOTAK	17981,00€	IRAKASLEEN SOLDATAK	16390,25€
ZINE JANA	100,00€	KOMISIOAK	155,63€
PATIN ROLLER	65,00€	KORRIKA	250,00€
		ZINE JANA	160,00€
		PIANOA	500,00€
		FESTAK	539,00€
		MATERIALA	300,00€
GUZTIRA	18146,00€	GUZTIRA	18294,88€

Aurtengo ikasturtea jada martxan jarri da. Hainbat ekintza berri atera dira aurrera, besteak beste, hip hop, euskal dantza, haurren gitarra...

Ieltxok azpimarratu nahi du ikastaroetatik diru-soberakina dagoenetan, beste ikastaroak aurrera ateratzeko, tailer bereziak antolatzeko, ekintza bereziak aurrera eramateko... eta herrian antolatzen diren beste ekintzetan diruz laguntzeko erabiltzen dela.

Amaitzeko, aurtengo ikasturtea ondo joatea espero dute eta eskerrak eman nahi dizkie bertan parte hartuko dutenei!!!



UDAZKEN FESTA 2015

EGITARAUA

URRIAK 24, LARUNBATA

20:30etatik aurrera **barra** irekiko da eta **bokatak** jateko aukera egongo da

21:30etan BERTSO MUSIKATUAK herriko plazan

Bertsolariak:

Beñat Gaztelumendi, Jokin Labayen, Alaia Martin eta Oihana Bartra

Gai-jartzailea: **Unai Gaztelumendi**

Gitarra: **Ixak Arruti**

Baxua: **Urtzi Olaziregi**

Ondoren: **Herrikoen kontzertu** sorpresa

URRIAK 25, IGANDEA

10:30/13:30 AZOKA Igeldoko baserrietako produktuekin

11:00/12:00 HAMAIKETAKOA Herriko jubilatuentzat

14:00tan HERRI BAZKARIA Kultur etxean DIN DIN elkarteak prestatuta. Bertan, Igeldoko aiton-amonak omenduko dira eta **GILLERMO SEGUROLA** txiste-kontalariak bazkaria girotuko du

**Bazkariko txartelak Txistu eta Txapela tabernetan salgai
23€ helduak eta 12€ haurrak*

18:00tan EGURREZKO ESKULTURAK motozerrarekin **LUIS**

ERASOren eskutik

18:10etatik aurrera **IGELDOKO TALOGILEEK** prestaturiko merienda goxoa dastatzeko aukera



HIRU IGELDOTAR BERRIREKIN

Azken urte hauetan, Igeldora hainbat pertsona etorri zaizkigu bizitzera. Hori dela eta, arrazoi ezberdinengatik etorri diren hiru herritar elkarrizketatzeko aukera izan dugu. Ainara Azpiazu, Jexux Albeniz eta Irune Larrearekin hizketaldi berezia izan genuen hiru galderen inguruan.

1. Zerk ekarri zintuen Igeldora?

2. Nolako harrera izan duzu urte hauetan? Mugarik izan duzu herrian integratzerako garaian? Zein esparrutan sentitu zara erosoan?

3. Luzerako ikusten duzu zure burua Igeldon?



*Ainara Azpiazu Aduriz,
34 urte,
Hernaniarra
2011tik Igeldon*

1. Ba motzean esanda... etxe premiak. Hernanin genuen etxearen egitura pipiak janda zegoen eta norabait mugitzeko beharra genuen. Alesen bidez jakin genuen Ganbaberri baserria libre zegoela eta azkar mugitu ginen. Etxerik gabe ginela ikusita, etxe hori aukera polita zen eta, gainera, Igeldon.

Hernanin genuen etxea ere baserri tankera-koa zen. Etxea mendialdean egotea "plus" bat zen guretzat. Kontua da, gaur egun, ordaintzeko moduko etxe bat mendialdean topatzea ez dela erraza; alokairuak oso garestiak dira. Etxea mendialdean izatea zen baldintza eta, niretzat, Igeldon, primeran

2. Nik aurrez Larraitz ezagutzen nuen, berekin ikasi nuelako Soziologia unibertsitatean eta haren bidez beste batzuk ere bai; eroso sentiarazten ninduen jendartea zen. Etorri nintzenean, pixkanaka ezagutu nuen jende berria baina, nik uste, gehienbat azken urte honetan egin dudala integrazio-pausorik handiena. Esan beharra dago, baita ere, nik marrazkilari gisa egiten dudala lan eta, izatez, lan bakartia dela oso eta, beharbada, horrek berak bakardaderako joera sortu dit azken urteetan. Baina, zorionez, azkenaldian asko

zabaldtu gara, bai ni eta bai herria. Nik pauso bat eman dudan heinean, gauzak errazten joan zaizkit.

Gazteekin, oro har, erraza egin zait harremana. Zerbaiteko kontuan hartzen zaituzten unetik errazagoa da beste jende bat ezagutzea. Nik uste pala-txapelketaren kontuarekin hasi nintzela eta pixkanaka joan naizela jende gehiago ezagutzen eta gauza gehiagotan parte hartzen. Egia da, norbaitekin lehenengo kontaktu hori egiten ez baduzu kostatu egin daitekeela zabaltzea eta horretara mugatuta gera zaitezkeela. Batzuetan ez da erraza, baina gogo pixka bat jarriz gero... zaila ere ez da. Nire kasuan, horixe, palarekin hasi nintzen eta, gerora, ba "igeldotarra izan nahi baduzu eskean atera behar duzu" eta horrelakoak esaten zizkidaten (kar, kar) eta, horrela, egun jakinetan parte hartzen hasiz, pixkanaka. Lotsak sortzea erraza da eta "komunitatea" sortuta dagoenean "berria" izate hori ere pasa egin behar izaten da eta, niri behintzat, kostatu egin zait; baina, behin hori pasata, ederra da. Nik uste lotsarik izan ez banu lehenago animatuko nintzatekeela. Hala ere, hori ez da Igeldoren kontua, edozein toki txikitik gertatzen da. Azkenaldian oso esker oneko nago; azken festetan oso ondo pasatu dut, eskean ere primeran pasa nuen... eta Igeldoko jendea zenbat eta gehiago ezagutu, gusturago nago. Iruditzen zait, pixkanaka, esparru ezberdinetako jendea ari naizela ezagutzen. Lagunak egiten ari naiz eta hori oso gauza polita da.

3. Printzipioz bai, oso gustura nago hemen. Gainera, Hernanirekiko ematen didan distantzia tamaina politekoa da. Hau da, Hernanin badituzten lotura handiak eta maiz joaten naiz baina, bai, nire asmoa hemen geratzea eta integratzen eta

lagunak egiten jarraitzea da, alokairuak irauten didan bitartean, behintzat (kar, kar). Luzerako ikusten dut hemen nire burua, mugagabe; oraingoz, nire bizilekua hau dela sentitzen dut.

.....



Irune Larrea Sistiaga
33 urte
Antiguatarra
2013tik Igeldon

1. Nire bikotekideak pisu bat zeukan plazan eta, egia esan, hurrekin bizitzeko toki eroso bat nahi nuen, nahiz eta etxea txikia izan, aukera hori genuen. Haurrak hazteko toki ona iruditzen zait eta Antiguok eta Igeldok beti izan dugu harreman ona...

2. Hasieran, itxia iruditu zitzaidan. Guraso taldea nahiko itxia, herrian ere -normala den bezala- bakoitzak bere "kuadrila", "goitik beherako begiratu" bat baino gehiago jasotzeko irudipena izan dut. Baina, berehala integratu nintzen; esan beharra dago, hurrek ere asko laguntzen dutela horretan baina, ni zauden toki horretan BIZI behar den filosofiaren aldekoa naiz. Hau da, ez bakarrik "lotarako", baizik ekimenetan parte hartuz eta bertako bizitzara egokituz. Nik uste ondo integratu garela.

Baten bat bistaz ezagutzen nuen aurrez, baina hasierako sententzia komunitate itxiarena zen. Behin martxan jarrita ez da hala, alde-rantziz. Orain, inor uste horrekin entzuten badut, kontrakoa dela esaten diot. Azken batean, iruditzen zait herriko jendeak bere erritmoa duela eta erritmo horretan parte hartzeko prest dagoena, bat gehiago dela.

Nire kasuan haurrena da integratzeko erraztasun handiena eman didan esparrua. Agian errazagoa izan zitekeen "Neurekoia" izanda, haurrak eskolatik atera orduko Antiguara eramatea, harreman "naturala" han dutelako. Baina, iruditzen zait hemen bizi bagara hurrei ere lotura hori eman behar zaiela; eta esfortzu hori egin nuen eta haurren aitzakian pixkanaka integratzen hasi nintzen. Eta antzeko zerbait haurrentzako zaintzailea behar izan

dudanetan; bertako norbaitengana jota, azken finean gazteekiko harremana ere modu naturalean sortzen da.

3. Printzipioz bai. Haurrak oso gustura daude, ni era bai... Nire familia eta nire bizitza, berez, gertu daukat.

Urte askoan bizi izan naiz kanpoan, toki itxian eta Antiguara bueltatu nintzenean ere, hasieran ez nengoen eroso, handia egiten zitzaidan. Aldatua zegoen, ez zen lehengo "gure Antigua"...

Egia esan oso eroso sentitzen naiz eta gustatuko litzaidake epe luzerako hemen gertzea. Gero ikusiko dugu bizitzak nora eramaten gaituen baina helburua behintzat hori da. Gustura gaude hemen, etxe handiagoa ere topatu dugu...

Haurrak oso gustura daude eta 12 urtera arte behintzat hemen egoten dira, gero ez dakit zer egingo dugun baina momentuz...

.....



Jexux Albeniz Albeniz
43urte
Aiarra
2005etik Igeldon

1. Giroak, jendeak... ni herri txiki batekoa izaki, antzeko toki bat nahi nuen eta, azkenean, ba Igeldon amaitu dugu. Lehendik gutxi ezagutzen nuen herria, egia esan, noiz edo noiz pasa bai, baina gutxi gehiago.

2. Ona; ni oso gustura nago jendearekin, eguneroko bizitzarekin eta... hainbeste jai daude urtean zehar! (kar, kar)

Guretzat integrazioa nahiko erraza izan da. Aitziber (emaztea) abesbatzan hasi zen eta jendea ezagutzen hasi ginen pixkanaka. Gero umea ere etorri zen eta... umeekin asko errazten da. Gure kasuan, abesbatzaren aitzakian jende heldua ezagutu genuen eta haurraren aitzakian, berriz, gazteagoa.

3. Plana hori da, luzerako, betirako. Bizitzak buelta asko ematen ditu baina, oraingoz behintzat, bai.


San Pedro jaiak

1993. urtean, jai-batzordea, "Ttonttorro" izenarekin hasi zen lanean. Taldea hamar bat neska-mutilez osatua zegoen. Urteak aurrera joan ahala, naturaltasun osoz, taldeko partaideak berritzen joan ziren. Baina 2010etik, gutxi gorabehera, gaur egun arte, jende berria taldean sartzeko prozesua erabat galdu da. Hala eta guztiz ere, azken urte hauetan Ttonttorroko kideek hainbat saiakera egin dituzte jende berria erakartzeko, nahiz eta ahalegin horrek esperotako emaitzak ez izan.

Jende eskasia zela eta, orain dela urte pare bat jaiak antolatzeko elkartzten den taldetxoak jaien antolamenduarekiko hausnarketa-prozesu bat abian jarri zuen. Herrian dauden eragile ezberdinek egitarauan antolatzen diren ekintzekiko lotura zuzena zutela ikusirik, aurtengo jaien antolaketan, berezitasun gisa, herriko eragileekin elkarlana egin da San Pedroak aurrera ateratzeko.

Hasitako hausnarketa-prozesua oraindik ez da amaitu, bai antolaketan eta baita egitarauan ere gauza asko baitaude herrian eztabaidatzeko. Azken urte hauetan ikusi den bezala, hainbat ekintzetan aldaketak egin behar izan dira inguruak bultzaturik. Aldaketa horiek egin aurretik, jai-batzordeak hainbat bilera deitu zituen, bai eragile eta bai herritarrekin. Hausnarketarako dagoen beste gai garrantzitsuenetako bat Igeldoko ohitura zaharrena da; urtetik urtera geroz eta jende gutxiagok hartzen baitu parte ohitura horietan. Ttonttorroko kideek argi dute, gizartea aldatzen doan heinean, ohiturak ere denen artean moldatu behar direla.

Ttonttorrok herritarrei eskerrak eman nahi dizkie aurtengo festak aurrea ateratzen laguntzeagatik eta baita eurretan parte hartzeagatik ere. Eta norbaitek ideia berriren bat izango balu, jai-batzordeak atea zabalik dituela gogorarazi nahi dizue edota emailaz (ttonttorro@gmail.com) kontaktuan jar zaitezketela.





GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Abian jarri da gripearen kontrako 2015ko txertaketa-kanpaina. Urriaren 5ean, astelehena, hasi zen kanpaina azaroaren 30era arte iraungo du. Honako hauei zuzenduta dago kanpaina arrisku-taldeak direlako:

- 65 urte baino gehiago dituztenak
- Diabetesa edo gaixotasun kronikoak dituztenak
- Haurdun dauden emakumeak
- Profesional sanitarioak

Aurten Igeldon bertan txertoa jartzeko aukera egongo da. Interesa dutenak, gerturatu daitezela ondorengo egun eta orduan, Kultur Etxera.

Eguna: URRIAK 30, OSTIRALA

Ordua: 16:30etatik 17:00tara

Lekua: Itsas Aurre kultur etxea

ESTATU ESPAINIARRA EPAITU

Irailaren 28an 5 urte bete ziren Askapenako 5 kide atxilotuak izan zirenetik. Urriaren 19an 5 kide horiek akusatuen aulkian eseriko ditu Estatu Espainiarrak. Horrekin aski ez, eta Askapena erakundearen eta Askapeña konpartaren ilegalizazio-eskaerak daude mahai gainean.

Horren aurrean, auzipetuen eta eskubide zibil eta politikoen alde lanean diharduten eragileek "herriak libre" dinamika abiarazi dute. Egoera irauliz, Estatu Espainiarra epaitzea da asmoa; honakoak dira estatuaren aurka erabiltzen ari diren frogak: saharar herriaren zapalkuntza duen erantzukizuna, OTANeko kide izateagatik, Latinoamerikan egindako sarraskiengatik, nazio ezberdinak zapaltzeagatik...

Euskal Herrian zein nazioartean hainbat herri epaiketa egingo dira, esaterako, Bartzelonan, Madrilan, Malagan, Argentinan, Parisen, Bretañan... Urriaren 12an, hispanitatearen egunean, eginiko epaiketa guztiak oihu bakarrean bilduko dira, Iruñean herri libreen martxa ospatu ondoren burutuko den herri-sententzian.


ARGIA EGUNA OÑATIN; TXIKITASUNETIK ERALDAKETA SUSTATZEN

Urtero legez, aurten ere ospatu zen Argia Eguna. Aldizkariaren harpidedun, irakurle, langile eta zaleek egun ederra ospatu zuten irailaren 20an, Oñatin.

"Txikitik eragiten" lelopean, egitarau oparoaz gozatu ahal izan zuten bertaratu-tako herritarrek. Goizeko 10:00etan, herriko bertsolari gazteez lagunduta, Oñatiko historiaz gehiago jakiteko, herrian barrena bisita gidatua egin zuten bertaratutakoek. 11:00etan, harrera-ekitaldia egin ondoren, mundua txikitik aldatzeko lanean diharduten eragileen azoka burutu zen. 12:30etan Argiazale eta eragileen arteko topaketa hasi zen, harpidedun, irakurle... iritziak jaso eta aldizkariaren diseinua egokitu beharra zegoela ondorioztatu zen. Bazkalostean, Ainara Azpiazu herrikidearen parte-hartze eta guzti, Jakoba Errekondorekin solasaldia burutu zen. Arratsaldean izan zen eguneko ekimenik bitxiena: Euskal Herriko Nortasun-Agiri Arrotzen II. txapelketa. Gorka Maiz gabirierra izan zen garaile, 28,10m-ko distantziara bere nortasun-agiria botata.

Berezitasun gisa, Argiaren konpromisoaren erakusle, bertako eta garaiko produktuen aldarrikapena praktikara eraman zen. Logika bera jarraituz, txosnetan txorrotako ura eta Arrasateko garagardoa eskaini ziren. Gainera, Oñatiko mone-ta soziala den Txantxiarekin ordaintzeko aukera ere izan zen.

JEROGLIFIKOAK



Ze baserri da?

ASMAKIZUNA

Aurpegi bat, bi esku,
beti zauzkatet infor-
matuta, eta halare
sarri naukazue horma-
ren kontra zigortuta

TXISTEA

Zer esaten du E.T.k:
limoia jaterakoan:
"Mikaaatzaaa"

SUDOKUA

	3				6			1
6			1	3			4	5
1		4	9					
			5	2			3	
	2		8	6	1			
	5			9	3	1		
9						6	5	
		5				8	7	
3	8						1	4

AURREKO ERANTZUNAK

JEROGLIFIKOAK

Bizarduna

ASMAKIZUNA



Denek

SUDOKUA

1	7	5	9	3	8	6	2	4
6	2	9	4	7	5	8	1	3
8	3	4	1	6	2	7	5	9
3	5	8	6	9	7	2	4	1
4	1	2	8	5	3	9	6	7
7	9	6	2	4	1	3	8	5
9	8	3	5	2	4	1	7	6
2	4	7	3	1	6	5	9	8
5	6	1	7	8	9	4	3	2

7 EZBERDINTASUNAK





IRITZI-ARTIKULUA: "KORTXOENEA"

Zaila da Kortxoenean erresistitzen daramagun hilabetearen errepasoa egitea. Egin dugu komunikabideen aurrean prentsaurrekorik, bisitatu dugu telebista saiorik eta ekimenak egin dira leku ikusgarrietan autogestioaren aldeko aldarria plazaratuz. Mezua beti izan da aurrera darraigula, ez diogula kapitalari espazio askerik oparituko, eta Kortxoeneako proiektua defendatzen jarraituko dugula. Eta irabazten ari garela.

Ahaztu egiten zaigu, ordea, pertsonatik pertsonara hitz egiten, hitz handiak alde batera utzi eta pertsonalki irabazi eta galdu duguna baloratzea. Kortxoenearen defentsak nekatuta utzi gaitu, nekatu egin gaitu egunero eta gauero bertan egon beharrak, mila kontzertu, mila ekimen, milaasanblada antolatzeak. Nekatu gaitu indartsu gaudela esateak, hala ez zela uste genuen momentuan.

Neke guztiak hor daude, eta hala aldarrikatu behar da; baina hainbeste dago jokoan. Eta ez naiz ari kapitalari espaziorik ez oparitzeaz, udal gobernua pausuak ematera behartzeaz, ez eta proiektua indartzeaz ere. Pertsona bezala jasotakoaz ari naiz. Hainbeste irabazten ari gara! Kortxoeneak gauzak bestela egiteko aukera eman baitugu: pertsonatik pertsonara, harremanetan sakonduz, gaizki egindakoak kudeatuz, auzolanean, irakatsiz, eta bereziki, ikasiz. Zaila da sentipen hauek neurtu eta baloratzea. Ez gaude ohituta horretara. Baina guk argi dugu irabazten ari garela.

Amets Artelazki

HERRIKO AGENDA

URRIAK 19, 18:00TAN	UDAZKEN JAI ANTOLATZEKO KEDADA
URRIAK 24 ETA 25	UDAZKEN JAIA (EGITARAUJA BARRUAN)
AZAROAK 13-14-15	GARAGARDO AZOKA
AZAROAK 28	LEZKARRIK EMANALDIA EGIAKO FRANTZISKANOEN ELIZAN
ABENDUAN	EUSKARAREN EGUNA (ZEHAZTEKO)



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:



**Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián**